

## Inaurkintan

HOSTOA ETA ORRIA. Eta hostoria. Guk hostoa hitza ikasi genuen txikitari. Orria soilik pinuarenari deitzen erabiltzen zen, pinuaren orria. Beste guztiak hosto. Eta liburuak jaten hasi nintzenez, orrialdeak gora eta orrialdeak behera. Hostoaldea ez al zen hobe? Orduan ikasi nuen hostoari, hosto zapal lau xafla itxurako horri orri ere deitzen zaiola. Eta, ufako baten ondoren, lasai jarraitu nuen orrialdez orrialde.

Orbel giro da. Gaur egun aziendaren azpitarako ez da asko behar: azienda gero eta urriago eta dagoenari lastoa edo zerrautsa zabaltzen zaio hankapean. Bat ere azpirik gabe etzaten denik ere bada, burdinazko sarean... Horrelakoa da gero eta esne-azienda gehiago: ardi asko eta, jakina, gure behi gehien-gehienak. Ez dituzte beren arbasoek adarrak tentetzen! Esne greba berehala genuke. Izan ere, garai bateko orbelezko ohea bezalako gutxi; baita geuk ere.

Ohe ederra da garoa ere. Ez hosto eta ez orri ez da garoarena, hostoria baizik; hosto ebakidura sakon ugariz pikatua. Garo meta bat atarian duen ukuilua lau izarreko zenbait hotel baino hobe da. Iraila piztean gorritzen diren garomenak moztu eta ihartuta etxeraten dituenak, aziendaren atsedenean pentsa-

tzen du. Abaroa buruan duenak lehenik jatenak zaindu ditu. Burdinazko sare baten gainean lo egiten duenaren aldean, ederki elikatuko dute inaurkintan lo harrarazten dutena. Horienak bakarrik jatea eta edatea hobe genuke.

Artaburuen artobero usain harrokoa urte osoan aditzen bada ere, hemendik aurrera helduko dira artaleak. Gero arta zuztarrak jasoko. Zuztar hori ere ez da nolana hiko azpi. Ukuiluan zuztarrak, logelan zurikina. Artazuriketan buruari kentzen zaizkion hostoak dira zurikin. Garai batean, luma hauta finez ez, baizik eta zurikinez beteak izaten ziren lastairak.

Pinu orria ere ez da azpi txarra. Inoiz ez dut oherako inaurkin bezala ezagutu, baina gero eta usua go darabilgu landareen azpitan. Pinu orriak belarra haztea nekeza go egiten duenez, jorra lanak urritzeko erabiltzen da batez ere.

Hosto, orri, hosto-  
rri, orbel, zurikin...  
onena, inaurkin horie-  
kin sortzen den simau-  
rra. Simaur onena. ■



JAKOBA ERREKONDO



Pinu orri pila. Jorra lanak urritzeko erabiltzen da.

INAKI SALSAMENDI



## Aurten ez da giro

Klimak eta eguraldiak nahiko hizpide jarri dute aurten. Negua epeletik joan zela, udaberria urasetuta etorri, uda berandu eta motza... Eta ondorioz gerezi gutxi, intxaurra eta hurra eskas, sagarra urri eta atzera... Baratzezaleek dute udaraero hizpide. Aurten entzun ditudanekin *Euskaldunon tomateak* entziklopedia idazteko adina material bazen.

Babarruna aldiz aspaldiko txukun eta berdinen etorri dela esan dezaket. Gure herriko erriberetan, behintzat. Jeneralean babarrun sailean bi edo hiru bildualdi egiten dira, lekak heldu ahala jasotzeko. Eta batetik besterako tartean euriak zeresan handia du. Aurten, baina, gauzak bestela etorri dira. Hona argazki adierazgarria. Babarrun uzta osoa, pardan behetik gorainoko leka guztiak bataratu heldu dira. Alde ederra, bildualdi bakarra! Lorea berandu eman eta denak batera etorri... ■



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua [landareak@argia.com](mailto:landareak@argia.com) helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.